



Segurtasun eta Osasun Politikako Adierazpena

Gure ikuspegia

Smurfit Kappako langile guztiak onik itzuli behar dira etxera beren familiekin.

Smurfit Kappa konpainiak **egia** eta **erantzukizuna** ditu oinarri osasun- eta segurtasun-kultura bat sustatzeko.

Segurtasuna eta **osasuna** funtsezko **balioak** dira gure lanean, ez soilik lehentasun bat.

Gure ustez, **modu seguruan** lan egitea **negoziaezina da**, eta ez dago modu seguruan egin ezin daitekeen lan hain garrantzitsurik.



Tony Smurfit
Group CEO



Saverio Mayer
CEO Europe



Reinhard Reiter
CEO Virgin Fibre Cluster



Rafael Sarrionandia
CEO Kraft Specialties Spain

Gure printzipioak

Smurfit Kappa-ren politika hau da:

- Irekitasun, parte-hartze eta duitasun kultura sustatzea laneko tokian; denok gara elkarren osasunaren eta segurtasunaren erantzule.
- Arrakasten zein ezbeharren analisi konstruktiboak ematea. Gure langileak zaintzen ditugu, eta berek elkar zaintzea espero dugu, segurua ez dela uste duten edozer egoeraren berri emanez.
- Lan-istripuak berrikustea txosten eta ikerketa sendoak egin daitezten, eta dagokionean, segurtasuna eta osasuna kudeatzeko gure sistemak indartuko dituzten aukerak identifikatzea.
- Ezarri beharreko legezko baldintza guztiak betetzea eta segurtasuneko eta osasuneko praktika onak inplementatzea, osasuna eta segurtasuna kudeatzeko gure sistemak modu eraginkorren inplementatuz.
- Zuzendaritzako kide guztiak honako hauek betetzen dituztela ziurtatzea:
 - Segurtasun eta Osasun gaiak inplementatzeko, komunikatzeko eta betetzeko erantzukizuna hartzea.
 - Langile bakoitzak Segurtasun eta Osasun gaietan bere rola zein den ulertzeko eta bere banakako erantzukizunak betetzeko lan-giro bat sustatzea.
 - Modu seguruan lan egiteko enplegatu eta kontratista trebeak eta gaituak zuzentzea.
 - Segurtasunerako eta osasunerako gure arriskuak identifikatzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko prozedurak izatea, gure enplegatuen, kontratisten, bazkideen eta bisitarien lesioak eta gaixotasunak prebenitzeko maila onargarriak izan arte.

Gure konpromisoa

Segurtasun eta Osasun gaietan gure praktikak eta emaitzak etengabe berrikusteko eta hobetzeko konpromisoa hartzen dugu, gure ikuspegiaren bidean aurrera egiten jarraitzeko. Badakigu gauzak zuzen eta modu zuzenean egitea, integritatearekin eta errespetuarekin, premiazkoa dela gure enplegatuen konpromisoa lortzeko eta konfiantzan oinarritutako enpresa arrakastatsua sortzeko.

Segurtasun eta Osasun gaietako erantzukizuna goitik hasten da. Politika hori erabat bermatzen eta babesten dugunez, konpromisoa hartzen dugu ez bakarrik politika hori banatzean ikusgai izateko, baizik eta baita politika horren inplementazioan inplikatzeko eta horretan parte hartzeko ere.

Politika hori enplegatu guztiei jakinarazten zaie, eta eskuragarri dago interesatu guztientzat. Smurfit Kappa-k konpromisoa hartzen du politika hori aldiro berrikusteko, industriaren praktika onen arabera.

